


"Nongoa naizen jakin nahi baduzu, eta herri hartako hizketan entzuten banauzu, hona hemen erantzuna: Arabakoa naiz"

>GEU

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



çu baçarade serbietan
jaquiten naxan nungoa
bardin badoçu adietan
erriarrtaco berbaetan
ni banax arabacoa

**LAZARRAGAREN
ESKUIZKRIBUA**
Joseba Lakarra

**PEDRO MIGUEL
ETXENIKE**

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.

CEGASA
INTERNATIONAL



GAINERA...

HAN-HEMENKA (4-5. orr.):

- iritzian (4)
TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA:
lazarraga eta gu
- kaleak dio (5)
auditorioa
- araba bixotzian (5)
JON ZUBIAUR irudigilearen eskutik

KULTURAI SAILDIARI SO (27-39. orr.):

- agenda (27)
- idazleen gurgila (28-29)
Flashak
- historia zertzeladak (30-31)
Arturo Kanpion
- arte txokoa (32-33)
JAVI ANTOÑANA GITARRAJOLEA
- bidaia (35-36)
EGIPTO
- BERTAKOARI SO! (37)
ERLANTZ URTASUN historiagilearen txokoa:
Uda-Trebiñu: tragediaren hasiera
- errezeta (37)
- geu-ren eskaintza: (38)
- komikia (39)
IÑIGO SARASOLA

Azala ...



ahorik aho:

JOSEBA LAKARRA &
LAZARRAGAREN ESKUIZKRIBUA

6-9.
orr.

PEDRO MIGUEL
ETXENIKE fisikaria

10-12.
orr.



13.
orr.

euskaltasunean lagun:
IKER GUZMAN



14-15.
orr.

AITOR ARANA IDAZLEA,
aurki Gasteizen

gaika:



16-17.
orr.

CARLOS RESA.
Zinema pornoa



19-22.
orr.

IÑAKI ZORRAKINen oroimenez




23-25.
orr.

Arabako Bertsozale
elkartea & Bertsolari
txapelketa



26.
orr.

Mendebalde Institutuaren
kultur eskaintza



>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)

Geu aldizkari taldeak eginga, bideratua eta kudeatua

Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es



Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:	josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	edurne begiristain, josune velez de mendizabal, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak:	edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:	estitxu breñas glz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:	estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak:	edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa:	patirke sanz eta david alvez
logoa:	io grafix
komikia:	iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:	txema ramirez de la piscina, gidor bilbao, maite lekue, jon zubiaur, nabarralde, erlantz urtasun, diocesan-mendizorrotzak ostalaritza eskola eta arabako bertsozale elkarte
Publizitatea eta Banaketa:	edurne begiristain
Publizitate arloko laguntzaileak:	maite lekue
Sustapen-harpidetza saila:	edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500
	LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz eginga dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Intzaritza Kulturako Saria



"Nongoa naizen jakin nahi baduzu,
eta herri hartako hizketan entzuten
banauzu, hona hemen erantzuna:
Arabakoa naiz" (eskuizkribuaren 1201r

-aurrea- orrialdea)

argazkia-testua: gidor bilbao



Txema Ramirez de la Piscina,
EHUko irakaslea

Lazarraga eta gu

Euskal letrak zorioneko daude. Gipuzkoako Diputazioak egindako erosketari esker, oso garrantzi handiko aurkikuntza dugu orain gure esku: Arabako euskaran idatzitako XVI. mendeko eskuizkribu bat (interneten ere duzue: www.gipuzkoakultuta.net/lazarraga). Bere egilea: Juan Perez de Lazarraga —Larrea dorretxeko jaun laiko eta kultur handikoa— Agurain-Salbaterran jaioa.

Joan den otsailaren 18an Gipuzkoako Diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik eman zuen ofizialki aurkikuntza honen berri. Borja de Aginagalde adituak izan zuen eskuizkribu honen berri. Madrilgo antikuario batek zeukan eta Diputazioak hari erosi zion enkantean 66.000 euroren truke. 1564-1567 urtealdian idatzitako testua da. Ehunetik gora orrialde ditu eta Arabako euskaran —oso arkaikoan— idatzita dago. Hasieran mitologiazko istorio bitxi batzuk kontatzen ditu prosaz, ondoren bertso ugari azaltzen dira, maitasunezkoak gehienak, zenbait laudoriozkoak eta gutxi batzuk erlijiosoak. Ia lan osoa euskaraz dago, bizpahiru poema gaztelaniaz kenduta. Testuan ageri diren gai gehienak profanoak dira. Horrek ere izugarrizko garrantzia dauka, garai hartatik iritsi zaizkigun testu guztiak —Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* kenduta— erlijiosoak baitira.

Testua miatu duen Joseba Lakarra ikerlariaren esanetan, eskuizkribu hau ustekabeko “diamante literarioa” da; aberastasun filologikoz betea. Ikerlariak urteetako azterlana dute aurretik. Antzeko terminoak erabili ditu Xabier Kintana euskaltzainak: “eskuizkribu erabat baliotsua”.

Jatorriaz

Aurkikuntza honen berri eman duten kazetetan, azpimarratu da Juan Perez de Lazarraga egilearen etorkia: “*jatorriz oñatiarra den Lazarraga leinuko adar ugarietako baten kidea zen*”. Batek baino gehiagok pentsatuko zuen, XVI. mendan Arabako lautadan euskaraz egiten bazen Gipuzkoatik joandako

emigrazioari esker izan zela. Ez da egia.

Juan Perez de Lazarraga 1550 inguruan jaio eta 1605ean hil zen. Bere arbasoak XV. mendearen amaieran joan ziren Arabara bizitzera. Hiruzpalau belaunaldi daude tartean, tarte aski zabala Juan Perez de Lazarraga Araban txertatua zegoela pentsatu ahal izateko. Bestetik, kontuan hartu behar dugu garai hartan Barrundia eta Arabako lautada osoa ere euskalduna zela. Beraz, Araba ez zuten gipuzkoarrek euskaldundu, orduan gure herrialdea euskalduna baitzen.



Hainbat dokumentu dira horren lekuko. Horieta batzuk Estibalitz Breñas Glz. de Zarate eta Jabi Otsoa de Aldak egindako *Arabako Euskal* *hotsak* liburu apaineen kontsultatu daitezke. Hiru datu, labur.

Lehena: 1576. urtean Arabako Batzar Nagusiek erregeari eskatu zioten Gasteiz Elizbarrutiaren buru izenda zezala, besteak beste, kristautasuna zaindu beharra zegoelako “*porque esta provincia toda hella, está en comarca junta y la mayor parte de lengua bascongada, donde hai mayor necesidad para que su pastor sea presente*”.

Bigarrena: XVI. mendearen amaieran Lautadan egin ziren ezkontza asko euskaraz izan ziren (Gazeo, Langarika eta Alaizan, adibidez).

Hirugarrena: XVII. mendearen hasieran Logroñoko Inkisizioaren Auzitegiak itzultzaile baten beharra izan zuen eskualde honetako zenbait auziperatu epaitu ahal izateko (“*ynterprete en lengua bascongada*”).

Baina eskuizkribu honen aurkikuntzak, bere ederrean, badu alde ilun bat: Arabako agintariak erakutsi duten zabarkeria. Ez kultur diputatu Federico Verastegik, ez Ramon Rabanerak ez dute ezertxo ere esan honen inguruan. Ez bederen lerrook idatzi baino lehen. Ezjakintasuna, lotsa —Gipuzkoak sartu dieten gola dela medio— ala fede txarra? Agian beraiek ere “ynterprete” bat beharko dute!

Azken boladan Gasteizko Udalak eraiki nahi duen Auditorio berriaren inguruko iritzi eta jarrera anitz entzun dira gure hirian. Izan ere, afera honek bi eztabaida ezberdin sortarazi ditu iritzi publikoan. Alde batetik, eraikuntzaren inguruan sortutakoak eta bestalde, Gasteizen Auditorioa egiteko benetako eskaera dagoen ala ez. Hiritarrek gai honen aurrean duten iritzia plazaratzeko asmoz, kalera irten gara Auditorioaren gaiak sortutako erreakzioak jasotzeko. Hona hemen bildutakoa:

.....



Nagore Leon. Ikaslea

1. Principal antzokia egonda, ez lukete eraikuntza berririk eraiki beharko, gazteentzako zeozer egin beharko lukete.
2. Gasteizen kultura mailan aukera handia dago eta Principal antzokia izanik ez dut beharrezkoa ikusten. Nire ustetan Gasteiz beste hiriburuekin parekatu nahi dutelako sortzen da proposamen hau.

Iratxe. Hezkuntza bereziko irakaslea

1. Ez da beharrezkoa, Gasteizen areto asko ditugu kultura-ekitaldietarako eta hainbeste diru Auditorioaren proiektuan xahutzea, ez zait bidezkoa iruditzen.
2. Ez. Beste lehentasun batzuk daude Gasteizko hirian, auditorio baten beharra baino lehenago. Dauden aretoak egokitu behar lituzkete eskaera kulturalari aurre egiteko.



AUDITORIOA

1. Zer iruditzen zaizu auditorio berriaren proposamena?
2. Benetako eskaera al dago Gasteizen honelako proiektu bat aurrera ateratzeko?

Antonia Canales. Dekoratzaila



1. Oso ondo iruditzen zait auditorio berriaren proposamena, betiere Senda ibilbidean kokatzen badute.
2. Bai. Makrokontzertuak egiteko beharrezkoa da auditorio berri bat, Buesa Arena txiki gelditzen baita horrelako ekitaldiak burutzeko.


Josu Cordero. Kazetaria



1. Ez zait batere ondo iruditzen Udalak proposatutako Auditorioaren proposamena. Gasteizen beste lehentasun batzuk daude, etxebizitzak kasu. Auditorioa egin baino lehen Gasteizko hiritarrak zer eskatzen duen jakin beharko lukete.
2. Ez, ekitaldietarako plangintza egokirik ez dagoelako. Antzerki jaialdian antzokia lepo egon ohi da; urte osoan aldiz, ez da hau gertatzen.


Araba bixotzian

Jon Zubiaur



ARRIAGAREN KONDARRAK
— NEURE AMAMEN HERRIXA —
EDURTZAPUAN.

PEREZ DE LAZARRAGA ARABARRAREN XVI. MENDEKO ESKUIZKRIBUA, hegoaldeko euskarazko testu zaharrena



JOSEBA LAKARRA filologoa, testuaren ikertzailea:

joseba lakarra

“IKARAGARRIZKO ALTXORRA DA ARABARAKO ETA EUSKAL HERRIRAKO”

Juan Perez de Lazarraga arabarrak XVI. mendean idatziriko eskuizkribu bat eskuratu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ikerlariak diotenez, XVI. mendearen bigarren herenean idatzia da, Arabako euskaran idatzia dago eta balio handikoa da. Joseba Lakarra filologoak eskuizkribuaren lehen azterketa filologikoa eta literarioa egin du. Harribitxi honek aurrerantzean ikerketa eremu zabala irekiko duela uste du Lakarrak.

• **Perez de Lazarragaren testuaren aurkikuntza Euskal Herriko literaturaren historian iraultza bat izan dela esan daiteke...**

Euskara idatzia buruz gehienok daukagun inpresioa da 1900. urtera arte gutxi gorabehera idatzitako % 90etik gora ez dela benetako literatura. Horrek ez du esan nahi literatura erlijiosoan benetako literaturarik ez dagoenik, baina egia da literatura laiko oso gutxi dagoela gure artean. Orduan, 100 bat orrialdeko koaderno baten aurrean gaude, bi zati nagusi dituen: lehenbiziko herena, prosan idatzia; eta bigarren atala, beste bi herenak, poesian.

Bigarren zati hori arruntagoa dela esatea itsusi gera daiteke, baina hala da, amodiozko bertsoak dira, nahiko herrikoiak, Araba iparraldeko emakumei zuzendutakoak... Prosan dagoena, oster, ikerketa gehiagoren beharrean, garai hartako Espainia edo Italiako artzain-eleberrien antzekoa da. Euskal Herriko literaturan orain arte ez zegoen halakorik, ezta Espainian ere, modan egon arren goi mailako literatura zelako, ez zegoelako jende xehearentzat egina. Kasu honetan, gainera, Larreak herrian ez zirudien euskarazko irakurle handirik zegoenik. Horregatik guztiagatik, gure literaturak alde horretatik izan duen urritasunagatik, gehiketa izugarria dela esan behar da, hobekuntza da, hazkundea.

• **Prosaz idatzitako zatiak ikerketa gehiagoren beharra duela esan duzu, zer dela eta?**

Edozein naziotako literaturaren hasieretan, gehienetan behintzat, bertsoan egiten da, bertso herrikoietan, literatur horietan badelako ahozko tradizio bat, bertsoan egiteko ohitura bat. Euskaraz ere hori gertatu da, baina oso berandu arte euskaraz literatura laikoa ez da prosan egiten; Axularrek prosa egiten zuen, baina ez literatura laikoa, horretarako XIX. mendera jo behar dugula. Horregatik diot alde horretatik oso nekez espero genezakeen zerbait dela prosaz idatzita agertzea.

• **Arabako literatura ezagutzeko ere oso baliagarria izango da, ezta? Azken batean, orain arte euskaraz idatzitako literatur arloko testu gutxi zeudelako.**

Bai, orain arte askoz jota 3-4 orri genituelako soilik, eta hortik aurrera ezer gutxi genuelako benetako literaturaren aldetik. Beraz, alde horretatik ere ikaragarritzko altxorra litzateke. Bide batez esan behar dut, gaztelaniaz atera izan balitz ere berebiziko garrantzia izango zukeela. Baina euskaraz idatzita egoteak erabateko garrantzia du, eta aurrerantzean literatur historiagileek edo kritikoek zer esanik izango dute.

• **Filologia aldetik, Arabako euskarari buruz gauza asko argi ditzake Perez de Lazarragaren lanak, ezta?**

Bai, gauza asko. Euskara idatzian orrialde gutxiko testuak ditugu, eta zailtasun handiak daude hortik ezer garbirik esateko. Baina orain aurkitzen ditugu kolpe batez euskaraz idatzitako 90 bat orrialde. Berez oso interesgarriak dira, baina aldi berean egiteke genituen azterketa askotarako oso baliagarriak, hots, galdera askori erantzuna emateko: nolakoa



zen Arabako euskara, zenbat lotzen zen iparraldeko euskararekin, mendebaldearekin gehiago Gipuzkoa edo Nafarroarekin baino... horrelako gauza asko. Eta dialektoak alde batera utzita ere, bere arkaismoaren aldetik oso aipagarria da badirela zenbait aditz ordura arte ageri ez direnak. Ematen du gure ikasleren bat jarri dela ariketak egiten aditz zaharrak praktikatzeko. Beraz, gauza asko ditu ikertzeko. Are gehiago, handik ehun edo berrehun urtera agertzen diren dozenaka orriekin alderatuta ikaragarritzko altxorra dela esan daiteke, bai Arabarako bai Euskal Herri osorako ere.




• **Literatura alde batera utzita, soziologia edo historia aldetik ere ikerketa eremu zabal bat irekitzen du eskuizkribu honek.**

Noski. Perez de Lazarraga ez zen nolanahiko pertsona, jauntxo bat zen, familia inportante bateko kidea, euskaraz idazten zuena... Beraz, Arabako XVI. mendeko soziologiarako ematen du zer pentsatu. Halaber, historikoki honek historialariei eta hizkuntzalariei ere gaia ematen die. Izan ere, bere

bizitzaz, inguruko jendearen bizitzaz eta ohiturez jakiteko oso baliagarria da. Baina hori bezain interesgarria da egilearen kultura aztertzeke ere balio duela, pentsatu behar dugulako Perez de Lazarragak kasualitatez ezin idatzi ahal zuela Larrea aldean artzain-nobela bat, ez baitira inoiz kasualitatez idazten eta ez dituelako nornahik idazten. Orduan, zerk eraman zuen hori idaztera? Non ibili zen? Zer idatzi zuen? Zer ikasi zuen? Norentzat idatzi zuen? Hor galdera mordoa daude erantzuteko.

• 100 orrialde horietan orain arte sakabanatuta egon diren elementuak apropos metatuta daudela ematen duela esan dute zenbait adituk, faltsifikazio bat izan daitekeela iradokiz. Zer deritzozu horri?

Norbait gai balitz osoa ez, soilik lehenengo orrialdea faltsifikatzeko nik ohorezko matrikula jarriko nioke euskararen historian. Egia esan, hain txundigarria da, ez dirudiela benetakoa denik. Baina, zer egingo diogu! Kontua da Araban ezer ez izatetik bolumen hau izatera pasa garela, eta literatura berezia eta hain landua izatea harritzekoa dela.



XVI. MENDEKO ALTXORRA

• EGILEAZ:

Lazarragatarak politikan, armadan eta erregearen zerbitzuan nabarmendu ziren XVI. mendean Oñatin, Agurainen, Zaldudon eta Arabako ordekan. Senitarte ezagun horretan bazen bat letretara gerturatu zena, Juan Perez de Lazarraga zen berau. Gai profanoen inguruan koplak, bertsoak eta kontakizunak euskaraz idatzi zituen hau genealogiaren zalea ere bazen, eta 1589an Lazarraga leinuaren genealogia bat burutu zuen.

• ESKUIZKRIBUAZ:

Juan Perez de Lazarragak XVI. mendearen bigarren herenean idatzitako testuaren bi herenak bertotan eginak dira, baina hasierako zatia bestelakoa da, artzain-eleberrien tankerako prosa baitakar. Hala ere, harribitxi honetan bada idazki erlijiosorik, Jesukristoren azken afariaren inguruan edo Maria Magdalenari buruz. Aguraingo erreketari ere idatzi zion, eta ahots herrikoia jaso zuen.


Elkarri jositako zenbait koaderno osatutako eskuizkribuak pergaminozko azalak zituen erantsirik, garai hartan ohi zen moduan. Lehenengo ikerketen arabera, esku bakarrak sortutako zirriborro bat da, eta zenbait orrialdetan, zirrimarrak ikus daitezke.

Hasieran eta bukaeran hainbat orrialde apurtuta agertzen dira, eta horrek liburua mardulagoa zela pentsatzeko bidea ematen du.


1169r eta 1169v orrialdeetan
EUSQUEL ERRIA hitza agertzen
da behin baino gehiagotan, lehe-
nengo aldiz euskal literaturan

(Gidor Bilbao)


“...nolakoa zen Arabako euskara,
zenbat lotzen zen iparraldeko
euskararekin, mendebaldearekin
gehiago Gipuzkoa edo Nafarroarekin
baino... Gauza asko ditu ikertzeko”



1152r (aurea) orrialdea




1169v (atzea) orrialdea



1169r (aurea) orrialdea

PEDRO MIGUEL ETXENIKE, Fisikaria:



**“Gauza ederrak
modu astun batez
azalduz gero alferrik
gal daitezke”**


Pedro Miguel Etxenike Landiribar fisikaria pertsona aski ezaguna da Euskal Herrian eta nazioartean. Gaur egun katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Materia Kondentsatuaren Fisikaren alorrean, eta ikertzaile gazteei zuzendutako doktoretza ikastaroak eskaintzen ditu bertan. Urtarrilaren amaieran Gasteizen izan zen, Olabide Ikastolaren eskutik, zientziaz eta sormenaz hitz egiteko. Gai horretaz zein bestelakoez mintzatu gara berarekin.

• Fisikaren zein esparru lantzen duzu? Zertan ari zara egun?

Materia kondentsatuen fisika eremuan egiten dut lan, alegia, materialen zientzia lantzen dut. Materialen osagaiak aztertzen ditut, eroapen elektrikoa, hots, materialek beroa, argia edo osagai elektronikoak zein modutan igortzen dituzten ikertzen dut. Hori guztia eratzailerik atomikoetan gertatzen dena aztertuz.

• Bizitza osoa daramazu lan esparru hori lantzen, ezta?

Bai. Materia kondentsatuaren fisika oso eremu zabala da, eta munduan fisika alorrean egiten denaren erdia bere baitan dago. Esparru horren barnean nik gai zehatzagoak lantzen ditut: gainazalen fisika aztertzen dut, hau da, materialen azalean gertatzen dena. Gainazala material baten zati txiki bat baino ez da, baina garrantzi handikoa, bertatik den-dena igarotzen baita. Alor horrek berebiziko garrantzia du medikuntzari dagokiolarik: begi baten tumorea tratatu nahi bada, esaterako, eta erradiazioa erabili nahi bada, jakin behar da protoi bat uretan sartuz gero energia galtzen duela...



• **Adituak ez garenontzat ez da batere samurra halako terminoak ulertzea.**

Ez, egia da. Baina zientziak duen arazoetako bat da bere hizkuntzak nolabaiteko entrenamendua eskatzen duela. Artearen beste adar batzuk, berriz, eskuragarriagoak izaten dira. Haatik, zientziaren kasuan erabiltzen den lengoaiak berebiziko garrantzia dauka, neurri handi batean lengoia matematikoa erabiltzen delako. Beraz, ingelesez dagoen poema bat ingelesa jakin gabe ulertezina den moduan, zientziaren zenbait gauza ezin dira ulertu hizkuntza egokia erabiltzen ez bada.

• **Zientzialaria izateak kanpora bidaiatu behar izatea eskatzen du. Denbora asko igarotzen duzu etxetik kanpo?**

Lehen baino gutxiago, baina bai, kanpora maiz atera behar izaten dut. Zientzia internazionala da eta mugitzea eskatzen du. Hain justu ere, kanpoan denbora gutxiago igaro behar izateko Donostia International Physics Center

gunea sortu dugu, gure jarduera nazioartean zabaldu aldera. Izan ere, zientzia funtsean jarduera sortzailea denez ezin da errezeta moduan irakatsi, hots, ezin da zientzia erakutsi eskailera bat margotzen irakasten den moduan. Zientzia ikasteko modu bakarra alor hori ongi egiten dutenekin egitea da, eta horrek bi bide baino ez ditu: beraingana jotzea edo beraiek guregana etortzea.

• **Fisikaren mundua zaila eta ulertezina suerta daiteke herri-tarrentzat. Ba al dago modurik jendeari gai horren inguruko informazioa modu errazago batean helarazteko?**

Dibulgazio zientifikoak bi bide ditu. Batetik, hiritarrei azaltzea zientzialariok egiten dugunak zertarako balio duen, zergatik egiten dugun..., eta aldi berean, zientziaren kontzeptu orokorrak, zientziaren edertasuna, zientzia kulturaren parte gisa azaltzea... Neuk dibulgazio mota hori egiten dut. Baina bada besterik, hau da, kontzeptu zientifikoaren igorpen pedagogikoa egitea profesionalak izango direnei. Eginkizun hori irakasleek

egiten dute. Baina nik ez dut nire burua fisikaren pedagogotzat hartzen. Nire ustez garrantzitsua da gauzak egoki igortzea, gauza ederrak modu astun batean azalduz gero alferrik gal daitezkeelako.

• **Lehen esan duzu zientzia ulertzeko traba bat lengoaiaren konplexutasuna dela. Ezin al da bilatu hizkuntza errazagorik mundu hori ulertzeko?**

Gauzak ahalik eta modu sinpleenean azaldu behar dira, baina Einsteinek zioenez, ez behar baino sinpleago. Izan ere, gauzak ahal dena baino errazago azaltzen direnean, azkenean beste gauza bat azaldu egiten da. Berez zailak diren gauzak egon badaude, eta hori ezin da ekidin. Beste kontu bat da kontzeptu batzuk eskuragarriagoak egin ahal izatea. Baina berez zailak diren gauza askok ahalegin bat eskatzen dute, eta maiz ematen du gauzak erraz egiten direnean ahaleginik ez dela egin behar. Nire aburuz, ahalegina ez da den baino gogorragoa egin behar: maratonia egin nahi duen bati teknika asko irakats



dakioke, baina azkenean entrenatu, entrenatu beharko du.

• Zein egoeratan dago egun ikerketa esparrua Euskal Herriko Unibertsitatean? Gauzak ongi egiten ari direla eta

talde onak daudela uste dut. Hala ere, irizten diot Euskal Herria Espainiarekin alderatuta atzeratua dagoela oinarritzko zientziari dagokionean. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek ohartu behar dute oinarritzko zientzian

dagoen atzerapenez. Zientzia eta teknologiaren nazio mailako plan bat behar dugu, baina baita oinarritzko zientziarena ere. Unibertsitatean eta atzerrian nahikoa jende dago plan horretan inbertitzen diren fondoei etekinak ateratzeko.

• Euskal Herrian ikertzaileen harrobirik ba al dago?

Bai, bai, Unibertsitatean bertan, baita kanpoan ere. Arlo batzuetan oso ona, gainera. Euskal Herriko zientzialarien kopurua handitzeko bezainbeste jende badugu. Izan ere, gure herrian oinarritzko zientzia lantzen duten zientzialarien kopurua Espainian eta Europan baino askoz txikiagoa da. Beraz, zientzialarien kopurua handitzeko aukera egon badago, eta lagun horietako asko aukeren zain dago. Une honetan Euskal Herrian egin daitekeen politika zientifikoa hobereena da zain dagoen ikertzaileen harrobi horri laguntza, baliabide eta toki egokiak eskainiko dizkioten aukerak sortzea.

• Gaur egungo gizarte konplexuaren aurrean, zer eskain dezake fisikariak? Zein eginkizun izan behar du gizartean?

Lehenik eta behin, bere lanbidea ongi egin behar du, fisikari batek ikerketaz gain, beste edozein alor landu dezakeelako. Gaur egun norbera dena ez da hain garrantzitsua, inportanteena da egoera zailtara moldatzea gai den adimena eta ezaugarri batzuk izatea. Illo horretan, fisikari bat horretarako bereziki prestatuta dago, arazo konplexu baten muinari heltzen badakielako, komunikatzeko gai delako... beraz, lanean kalitate profesionala eskaini behar du, ez soilik ikerketan, beste alor batzuetan ere, esaterako, politikan.

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO


OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAZ
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

josune velez de mendizabal

argazkia: edorta sanz



IKER GUZMAN:



“Euskal Herria Europar Batasuneko 26. Estatua izatea da nire ametsa”

Mutil formala dugu Iker Guzman 26 urteko gasteiztarra. Zuzenbide ikasi eta egun Eusko Jaurlaritzan Europa gaietako sailean bekadun ari da. Saskibaloia, igeriketa, dantza eta mendira joatea ditu bere zaletasunen artean gustukoen, baita lagunekin jaia egitea ere.

-Liburu bat? “Rebelión en la granja” irakurtzen bukatu dut eta orain Txema Floresek idatzitako “Araba Gerran” irakurtzen ari naiz.

-Kolare bat? Urdina.

-Kirol bat? Saskibaloia.

-Janari gustuko bat? Marrubiak esnegainarekin.

-Egunkari bat? Berria eta Gara.

-Telebista saio bat? “Vaya semanita”.

-Gasteizek duen onena? Bizitzeko hiri ona dela eta aisialdirako azpiegitura egokiak dituela.

-Txarrena? Batetik, oso hiri kontserbadorea dela eta, bestetik, hiri barneko busen funtzionamendua... orain diote tranbia jarri behar dutela, baina hori baino hobe litzateke hiribusen azpiegitura auzoetan hobetzea.

-Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? Gero eta gehiago entzuten da, eta jendea ikasten ari da baina pentsatzen dut bizi-bizi zaila dela mementoz.

-Zuk zeinekin egiten duzu euskaraz? Lanean batez ere eta zenbait lagunekin.

-Musikaririk? Denetarik gustatzen zait, ez daukat talde faboritorik. Jaian nabilenean parrandan ibiltzeko aproposena dena gustatzen zait, bestela irratian, Euskadi Gaztean, entzuten dudana.

-Zure gorputzeko atalik politena? Amak dioenez, belarri politak omen ditugu etxekook.

-Gasteizen biziko ez bazina? Agian Iruñean.

-Txikitan zer izan nahi zenuen? Topikoa bada ere umetan guztiok nahi izan dugu futbolari izan.

-Amets bat? Euskal Herria Europar Batasuneko 26. Estatua izatea.



geu aldizkaria & elkarte eta naralde ekimenaren eskutik

AITOR ARANA IDAZLEA, APIRILAREN 20an GASTEIZEN IZANGO DA

Geu aldizkaria & elkarte eta Nabarralde kultur taldearen elkarlanari esker, Aitor Arana idazlea etorriko zaigu Euskal Herriaren iragana eta geroari buruzko hitzaldi multimedia ematera, apirilaren 20an, astearte, Montehermoso Kulturunera. Berarekin bildu nahi izan dugu hitzaldiaren nondik-norakoen berri eman diezagun. Hona hemen kontatu diguna:

-Apirilaren 20an hitzaldia eskaini behar duzu Gasteizen. Hitzaldia bainoago, gogoeta izanen dela diozu: Euskal Herria, iragana eta geroa. Has gastezen, bada, iraganetik. Hainbatetan euskarak XIX. mendean aukera garbia galdu zuela aipatu duzu...

Esperantoari loturik azalduko dizut. 1870. urtean esperantoaren sortzea eta gorakada eman zen. Urte honetan, gutxi gorabehera, Euskal Herriaren erdia euskaldun elebakarra zen. Esperantoa sortu zuen Ludoviko Zamenhofen ametsa eta nahia hasieratik gauzatu balira, agian, orduko euskaldun elebakarrak esperantoz elebidunduko ziratekeen, bigarren hizkuntza kanpo harremanetarako soilik erabiltzeko. Hori bete-betean etorriko zatekeen bat Zamenhofen nahiarekin, eta euskarari mesede egingo ziokeen,

Euskal Herri hegoaldeko jendeak eta Euskal Herri inguruko herriek esperantoa izango baitzuket euskaldunekiko zubi bakar gisa. Zamenhofen nahia, ordea, oraindik ez da errotu, eta orain ia ez dago euskaldun elebakarrik. Euskara bere etxean tinko sendotzeko aukera hau galdu zen, beraz.

-XIX. mendean ari zara, hori baino haratago jo nahiko nuke, baina. Nola azaltzen ahal diguzu euskararen iragana?

Hanka puntetan ibili beharra dago, nahitaez, euskararen egoera historikoa aipatzean, ez dagoelako datu argi askorik. Egoera zeltiberiar-euskaldunetik hasi (J. Gorrotxategiren iritzia haintzat hartuta) eta 16. mendeko datu fidagarrietara bitartean, iluntasuna nagusi.

Bi ondorio garbi atera daitezke, hala ere. Bat, euskararen historiaurreko egoeraz ez dakigu ia ezer: izan bazela, besterik ez, funtsean, hizkuntzak berak erakusten dizkigun datuengatik (Barandiaran). Eta ezagutzen dugun egoera historikoan Euskal Herria elebidun eta hirueledun agertzen zaigu: euskara, hizkuntza zeltak (iparrear eta hegoan); eta euskara, latina eta geroko erromantzeak ondoren. Bi, ezagutzen dugun aro historikoan, euskarak atzera egin du etengabe, 20. mendearen amaiera arte, eremu geografikoa eta eremu sozialak galduz.

-XXI. mendea medio, zer dio euskarak berak bere egungo egoeraz? Dena den, nork daki, beharbada horri erantzutea baino gehiago, gure artean galderak dira nagusi. Nondik jo, zeri erreparatu...

Euskalkiei begiratu beharra dago. Euren arteko ezberdintasunek hurbiltasuna ala urruntasuna adierazten dute? Euskara desegiten eta nortasuna galtzen ari da erdaren eraginez? Ez da hori historian gertatzen den lehen aldia? Latinaren eragina eta ekialdeko euskalkien lekukotza: oso "erromanizatuak" eta oso nortasun handikoak, hala ere. Galera geografikoa gelditu egin da, oraingoz, eta berreskurapen-zantzuak ikusten

dira. Iparraldean ahul, Hegoaldean makal oraindik. Zalantzarik gabe, herri borondateari esker dirau bizirik euskarak, praktikan ez delako beharrezkoa komunikaziorako, eskualde bakar batzuk salbuespen. Egoera honen ondorio zuzena: hizkuntzak, erdaren presiopean, erdal fonetika eta erdal moldeak bereganatzen jarraituko duela dirudi.

-Euskal Herriaren etorkizunaz bi hitz eskatu behar dizut...

Etengabe errepikatzen den gupil historiko batean sartuta bageunde bezala, biharko egoerari atzokoaren antza hartzen zaio, bi ezaugarri nagusirekin. Lehena, datozen mendeetan Euskal Herriak hirueleduna izaten jarraitzeko itxura du, eta ez dago kontrarik pentsatzeko arrazoirik. Bigarrena, zorionez, hizkuntza horiek artean euskara mintzaira garrantzitsua izango dela dirudi eta, berriz ere herriaren borondateari esker, gutxienez etxeko eta eskolako eremuak ez dituela galduko dirudi. Euskarak jadanik oso bereganatuta dituen erdal molde batzuk ikusiko ditugu. Biharko euskara ofizialean onartuta egoteko moduan ikusten dira. Hala ere, antzina gertatu den bezala, jatorrizko hizkuntzak bere nortasunari eusten jarraitu ahal izango duela pentsa daiteke.



AITOR ARANAREN BIBLIOGRAFIAREN ATAL BAT

Euskarari lotua

- Zaraitzuko Hiztegia, 2001
- Zaraitzuko Euskara, 2002
- Izarbeibarko Hiztegia, 2002
- Nafarroako Ipar-Ekialdeko Euskara, 2003

Literatura

- Herauskorritse, 1998
- Erregina bahitua, 2000
- Josu, Asier eta..., 2000
- Amodioaren gazi-gozoak, 2001
- Klaudia eta baloien sekretua, 2003
- Irunberriko sorginak, 2003
- Historia lazgarria, 2002
- Jainko txikia, 1994

BERTZE DATUTTO BATZUK:

Legazpin jaio zen, 1963an.

Hamazazpi urterekin idazten hasia.

Lau urtez (1983-1987) euskara-irakaslea Legazpiko AEKn eta Udal Euskaltegian.

Sei urtez Legazpiko Hots kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna.

Xut literatur aldizkariko lankide eta arduraduna.

Itzultzailea euskaraz, gaztelaniaz esperantoz eta ingelesez.

Haur, gazte eta helduentzako liburuak idazteaz gain, euskalkien alorreko hiztegitintzan eta metodogintzan ere lan egiten du.

Argitalpenen artean 15 itzulpen inguru ditu eta 35 liburu baino gehiago.

Itzulpen batzuk:

-Memorajoj de euska bovino (Behi euskaldun baten memoriak). Bernardo Atxaga. Euskaratik esperantora. Ikeder, 1999

-Nimen Uharte (Nim's Island) Wendy Orr. Ingelesetik espainierara. Ibaizabal, 2002.

-Oroimenaren azala. (La piel de la memoria) Jordi Sierra i Fabra. Espainieratik euskarara. Ibaizabal, 2002.

Carlos Resa betidanik ibili da kazetaritza munduan. Hamalau urterekin hasi eta Kalagorri eta Zaragozan arituz gero, Gasteiza etorri zen Andosillakoa duela 25 urte. Nafar honen aurpegia ezaguna zaigu batez ere Radio Gorbea-n eta Tele Vitoria-n 8 urte eman dituelako lanean. Egun, Resak 39 urterekin bere bizitzako beste amets bati ekin dio, zinemari, alegia. Esparru honetan amateur bada ere, Carlos gogotsu aritu da "Marranas con ganas" izeneko bere lehendabiziko film pornoa zuzentzen, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dauka.

• Nola erabaki zenuen film pornoa egitea?

Betidanik gustatu zait zuzentzea, baina eskoletara jo beharrean nik nire bidea egitea erabaki dut. Film asko ikusi ditut eta kazetaritzak eman dizkidan ezagupenekin iaz nire lehen film laburra izango zena egitea erabaki nuen, "Chico joven busca sexo" izeneko. Hau 'labur' konbentzionala izan zen, komedia kutsuan eginikoa eta Gasteizko lagunekin grabatutakoa. Ondoren, maiatzean, Joseba Fiestrasek antolatzen duen Gasteizko Zinema Jaialdian pornoaz mintzatuko zen mahainguru bat

CARLOS RESA,

zuzendari,



zinema pornoan

murgilduz

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourmier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 26 19 91
01004

Dalvez maketazioa
argitaratzaileak
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net diseinua

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



bideratzea proposatu zidan eta nik onartu nuen. Interneten eta abar aritu nintzen informazioaren bila eta zenbait ekoizle eta aktore ekarri nituen Gasteiza. Afari bat egin genuen eta film pornoak zuzentzearen gaia atera zen; ni nafar burugogorra naizenez ideia horrekin aurrera egitea erabaki nuen. Ekainean hasi eta abuztuan, jaien ostean, grabatu nuen filma. Nahiz eta pornoaren mundua ezagutu ez, Bartzelonako produkzio-etxe batekin harremanetan jarri nintzen eta berak eman zizkidan kontaktuak, aktoreak eta dirua.

• Zergatik erabaki zenuen "Marranas con ganas" izenburua jartzea?

Batez ere bideoklubean dauden filmetan eta egunkarietan datozen hitzen bidezko erlax-iragarkietan oinarritu nintzen filmaren izena hautatzeko orduan. Tankera honetakoak dira gaur egun, eta hastapenetatik ere, sexu pelikuletan erabili ohi direnak.

• Pornoak film konbentzionalek baino etekin gehiago ematen duela aipatzen da, hala al da?

Bai, hala da neurri zehatz batean. Izan ere, lehendabiziko pelikularekin ez dago dirua irabazterik. Oso mundu itxia da, gurpil zoroa. Ekoizleek ez dute bertan inor berririk sartzetik nahi, pastela gutxi batzuen artean banatu nahi dutelako. Hortaz, lauren artean kontrolatzen dute zinema pornoaren mundua, eta miseria bat ordaintzen dizute zu zeu uzkur zaitezene eta lanbide hau utz dezazun. Baina nolanahi ere, egia ere bada zinema konbentzionalean baino diru gehiago ateratzen dela, izan ere, inbertsioa txikiagoa baita. Astebetean grabatzen duzu, beste

astebete muntatzeko eta horrelako epe laburrean merkatuan daukazu. Beste abantaila bat da argumentuaren haria bi ordutan asko jota egiten duzula, eta aktore onak kontratatuz gero ziurra da film horrek publikoa izango duela.

• Zure kasuan, nola hautatu zenituen aktoreak?

Froga bat egin nuen. Kasu honetan ez naiz profesionalekin aritu, amateurrek askoz ere merkeagoak dira eta. Baina azken hauekin grabatzeak arazoren bat ekar dezake. Amateurrekin gerta daitekeen arazo bat da egun txarra izatea eta eszena ezin grabatu izatea. Baina horretarako ere sekretutxoak dira eta 'gatillazo' a delakoa egonez gero, konponbide bat viagra erabiltzea izan daiteke, oso erantzun ona ematen duena. Berez, horren erruz eszena grabatzerik ezingo balitz, emakumezko aktoreari berdin-berdin ordaindu behar zaio. Kopuruaren ideia bat egin dezazun, aktore arruntek 400 euro kobratzen dute eszena bakoitzeko, eta oso onek aldiz, 1.500 euro. Film honetarako, guztietan bezala, mutilak erraz aurki daitezke, profesionalak nahiz ez profesionalak; hau da, esperientzia gabekoak beren etxeetan sekulakoak izango dira, baina gero kamara baten aurrean aritzea ez da gauza bera eta askotan ez du funtzionatzen. Neskei dagokionez aldiz, Gasteizen bilatzen ibili nintzen arren ez zen inor aurkeztu. Neskak aurkitzea beti da zailagoa eta azkenean profesionalek jo behar duzu. Guztira film honetan aritu diren aktoreak, Bartzelonakoak, Valentziakoak, Madrilekoak, Hungariakoak eta Gasteizkoak izan dira.

• Non grabatu zenuen eta zein da

"Marranas con ganas" laburraren haria?

Kokapenak duplex batean, taberna batean eta etxe batean egin genituen. Mendian ere eszena bat grabatu genuen baina hantxe 'gatillazo' a gertatu zen eta ondorioz ez zen aurrera atera. Argumentuaren hariari dagokionez, esan bezala, hau ez da gidoi jasoa, baizik eta burura datorkizun istoriotxo eta sexuzko eszenen bidez garatzen doana. Kasu honetan hiru neskaren adiskidetasuna hartu dut oinarri. Hirurak pisu berean zeuden, baina bakoitzak bere aldetik egin zuenean urtean behin elkar ikustea erabaki zuten. Biler horietan urtean zehar bakoitzak izandako larru-jotze onenak kontatuko ditu eta ondoren, horietan ikasitakoa praktikan jarriko dute beraien artean.

BESTE BI LABUR: HETEROA ETA GAY

Carlos Resak aipatzen duenez, "bide honetatik jarraitzeko asmoa daukat eta ez dago gogoa galaraziko didanik". Datozen hileetarako egitasmo bi ditu Resak. Hurrengo lanak filmak izan beharrean laburrak izango dira. Batetik, apirilean *La inpiración* izeneko hasiko da grabatzen. "Hau labur heteroa izango da. Protagonista bere koadroak margotzeko ideiak faltan dituen margolaria izango da", dio zuzendariak. Beste lana gay izango dela azpimarratzen du Resak. "Lehena grabatzen bukatu bezain pronto hasiko naiz *Free escort* izenekoarekin -azpimarratu du-. Honetan sexu basatia agertuko da".

Carlos Resak bere lehenengo film pornoa izan den honetan gertaturiko pasartea gogora ekarri nahi izan du: "Aktoreek eszena egiten ziharduten betiko moduan eta posturak behin baino gehiagotan errepikatzen ari ziren. Gauzak horrela, Javier Prada zuzendari laguntzaileak aholkuak eta ideiak ematea erabaki zuen. Oso ondo irten zen eta hortaz 'aholkulari pornoa' izendatzea erabaki genuen".

Udaberria
euskaletgia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

EA
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gaste
abertzaleak
www.gasteabertzaleak.com



MIKO
Izozkiak





KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



2000







2001





ez adiorik, iñaki

2002





(euskaldunon egunkariaren omenez)



2003-2004

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA, BERE EGITASMOA EZAGUTZERA EMAN NAHIAN



Oihane Perea, bertsolaria eta Arabako Bertsozale Elkarteko idazkaria

Gizarteari bere proiektuaren berri osotasunean ematea da Arabako Bertsozale Elkartek urte honetarako finkatu duen erronka. Sortu zeneko garaiko helburuak alde batera utzi gabe, gure herrialdeko bertsolaritza eta euskalgintza suspertzeko egiten ari den zeregina aurkeztu nahi die arabarrei, euskaldun zein erdaldunen artean. Horretarako bere hiru ardatz nagusiak plazaratuko ditu; bertsolaritzaren transmisioa, hedapena eta ikerkuntza, alegia.



MARRAZKIAK & KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!



1 982. urtean Gasteizko eta Aiarako Bertso Eskolak sortu baziren ere, 1993. urtera arte ez zen egun ezagutzen dugun Arabako Bertsozale Eskola eratu, egunotan Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen proiektuaren partaide dena. Eskolen bidez bertso-gintzaren transmisioa belaunaldiz belaunaldi ziurtatzea eta bertsolaritza ezagutzera ematea ziren zehaztutako helburu nagusiak. Jada egunotan mantentzen den xedea. Haatik, elkartek bere lana gizartean ezagutarazteko beharra ikusi du aurten, baina ez bakarrik bertsozale euskaldunen artean, bai eta erdaldunen artean ere. Oihane Perea bertsolariak eta Arabako Bertsozale Elkarteko idazkariak esan bezala, "euskara maite duen erdaldun asko dago, adibidez, Bertso Eskoletako ikasleen guraso ugari". Horregatik, helburu hau lortzeko lehen urratsa komunikazio lana elebiduna egitea izan da. Izan ere, hedabide lokalekin batera lan egiteko asmoa aurkeztu dute eta elkartearen inguruko informazio guztia biltzen duen eskuorria banatuko dute ikastetxe, udaletxe eta elkarreetan.

Egitasmoaren zutabe nagusiak

Arabako Bertsozale Elkartearen lana zabala eta aberatsa da eta lau sail desberdinetan dago banatuta. Lehenik eta behin, **Transmisioa** deritzan atala aurki daiteke, belaunaldi gazteen artean bertsolaritza zabaltzea helburu duena,

hain zuzen. Honen barnean programa ezberdinak garatzen ditu elkartek. Alde batetik, bertsogintzaren bidez hizkuntza eta ahozko euskara lantzea jomuga duen "Ni ere bertsolari" proiektua dago. Honi esker, Arabako 18 ikastetxetako 600 ikasle inguruk bertsolaritza lantzen dute eskola orduetan. "Modu jostagarrian, haurra bertsoazletzen da eta bide batez, bere euskara maila hobetzen da. Gainera, komunikazio estrategia eraginkorrak lantzeko proiektua ere bada", azaldu du Oihane.

Bestalde, aski ezagunak diren Bertso Eskolak eta eskolaz kanpoko ikastaroak bultzatzen ditu elkartek. Egundak, Amurion, Laudion, Legution, Aramaion, Araian, Agurainen eta Gasteizen daude eskolak, guztira 150 ikasle inguru bilduz. Honi Zuhatzan antolatzen diren Bertso Barnetegiak, tailer laburrak edo Bertso Saioak gaineratu behar zaizkio, guzti-guztiak haurren eta gazteen motibazioa, aisialdian bertsolaritzarekiko kontaktua eta zaletasuna lantzeko prestatuak. Hala ere, haurrak ez ezik, helduek ere bertsotan aritzeko aukera ere badute, besteak beste, heldu hasiberrientzako eta Arabako bertsolarientzako ikastaro osagarriak esker. Guztira, 15 irakasle dira sail hau aurrera eramaten dutenak.

Elkarteko sailekin jarraiki, **Komunikazioaz** arduratzen dena da hurrengoa. 4 pertsonaz osatutako taldeak bertsozale eta bertso eskoletako ikasleei zuzendutako Berrirapera egiteaz gain, ostegunero

gazte-irratsaioa egiten du Hala Bedi irradian, Arabako txapelketaren nondik-norakoak Bertsozale elkartek duen web orrian azaltzen ditu eta, azkenik, hedabide lokalekin harremanetan jartzen da.

Bestalde, gizartean eta hedabideetan bertsolaritzaren **Zabalkundea** gauzatzen duen saila ere aipatu beharra dago. Bertso-ekitaldien programazioa, antolakuntza eta zabalkundea da atal honen zeregina, hau da, Arabako Bertsolari Txapelketak, bertso saioak, herriko jaietako saioak, hitzaldiak, kantaldiak edota ekitaldi bereziak suspertzea du helburu.

Azkenik, **Ikerkuntza** saila dugu elkartearen laugarren atala, dokumentazio biltzea eta ikerketaren sustapenerako taldea, alegia. Bertan lan egiten duten 3 pertsonen bertsolaritzarekin zerikusia duen edozein dokumentu biltzen dute, besteak beste, bertso saioen grabaketak, material grafikoa edota bertsolarien datu-baseak. Etorkizunerako asmoen artean, bertsolaritzak azken 20 urteotan Arabari egindako ekarpenaren inguruko liburua argitaratzea dagoela aurreratu digu Oihane.

Euskalgintzarekiko konpromisoa

Illo horretan, bertsolaritzak gure herrialdeari egin diezaiokeen ekarpenaz mintzatu zaigu Oihane: "Gure ustez, herriaren egoera soziolinguistikoa dela eta, bertso eskolak ez dira bakarrik bertsolariak sortzeko lekua, baizik eta euskaraz bizitzeko eta lagunarteko giroan euskararen normalizaziorako tresna oso eraginkorra". Bere aburuz, bertsolaritzak Arabako euskarari ekarpen bat egin diezaioke. "Memento honetan, bertso eskolatan eta bertsotan ari diren gazteak euskara berri bat sortzen ari dira, lagunarteko euskara aberats eta komunikatzeko eraginkorra dena", gaineratu du Oihane. Zentzu honetan, horren inguruko gogoeta egin nahi du elkartek, euskalgintzari ahalik eta ekarpen handiena eginez.

Egundak, Arabako Bertsozale Elkartek Aranbizkarra auzoko Amaia zentroan du egoitza eta bertako arduradunekin harremanetan jartzeko 945-010505 telefonoa edo araba@bertsozale.com e-posta eskaintzen du. Gainera, www.bertsozale.com web-orrian elkartearen zereginaren inguruko informazioa eskuragarri dago.

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2004

ALBERTO MARTINEZ GAILENDU ZEN ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO BIGARREN KANPORAKETAN

Martxan da Arabako bertsolari txapelketa. Azken bi urteotan bezala gogo biziz eta indarrean ekin diote Arabako bertsolariak urteko festa nagusi bilakatzen den Bertsolari txapelketari. Joan den larunbatean jokatu zen bigarren kanporaketa Aguraingo erakusketa gelan, eta nahiz eta beste ekitaldi batzuk ere izan herrian, antolatzaileek prestatutako aulkiak urri geratu ziren bertaratu ziren 60 lagun inguruentzako.

Bederatzi bertsolari aritu ziren lehian Naroa Sasieta gai jartzaile aguraindarraren gidaritzapean; Irati Anda eta Alberto Martinez Beitto gasteiztarrak, Laudioko Irati Mendiguren, Serapio Lopez Baranbioarra, Urbinako Josu Ormaetxea, Markel Bekares Ametzagakoa, Iker Ibarrola Amurriarra eta Aramaioko Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre.

Zortzietan zuten hitzordua bertsolariak ikus entzuleekin, eta gai jartzaileak esan bezala "luzamendu eta luzimendu handiegirik gabe" zortzi kanpaikadak entzun orduko hasi ziren protagonistak lanean.

Bertsolarien artean urduritasun giro bat antzematen zen, baina entzuleriaren berotasuna eta animua nahikoa izan ziren nerbioak arindu eta saio txukun bezain polita egiteko.

Derrigorrezko agur protokolariora bota ondoren, honakoa izan zen bertsolari guztiek egin beharreko lana: bina bertso ofiziotan zortziko nagusian, bina bertso zortziko nagusian hauek ere ofiziotan, lau oinak emanda zortziko txikian bertsoa osatzea eta hitza emanda neurri eta doinu librean bertsoa botatzea, azken bi lan hauek bakarka.

Lan horiek guztiak egin ondoren Alberto Martinez Beitto izan zen bederatzien artean puntu gehien lortu zituen bertsolaria. Bera izan zen saio guztian zehar erregularren aritu zena, nahiz eta besteen ahotik ere bertso on ugari entzuteko parada izan genuen.

Zortziko nagusian bertsolari guztiak nahiko serio ibili ziren, agian gaiek horrela behartuta. Aipatzekoa da Andere Arriolabengoak eta Markel Bekaresek egin zuten saioa. Biko hau senar-emazteen paperean jarri zuen gai jartzaileak.

LEHENENGO KANPORAKETA

TOKIA: Eskuernaga DATA: 2004-03-06

Gaijartzailea: Olatz Perea

Hodei Lopez de Arkaute:	87
Orlando Arreitunandia:	109
Iñaki Viñaspre:	107,5
Lander Meaza:	101
Izar Mendiguren:	93
Amaia Altube:	102
Rikardo Gonzalez de Durana:	117

Markel

Esandakoa benetan bada
izugarritzko gezurra
tabernatikan ekartzen zendun
izugarritzko atxurra
gau guztietan pasatzen nuen
benetan kriston beldurra
gaurkoan berriz aldrebes gauzak
emango dizut egurra.

Andere

Barkatu baina oraindik prakak
neronek ditut ta aizu
etxe honetan sekula inork
ez dizu egiten kasu
gaur disfrutatu hainbeste laztan
aiba horrenbeste muxu
baina laztana lasai ze bihar
Doblea izango dezu.

Zortziko txikian ere gauzak ez ziren okerrago joan. Hasiera batean erakutsitako freskotasunarekin jarraitu zuten taularatuek. Serapio eta Beitto aurreratu ziren halako batean. Beittok autoeskolako examinadorearen papera hartu zuen, eta Serapiok zazpigarren aldiz azterketa praktikoa suspenditu zuenarena. Batere lotsarik gabe horrela bota zion ikasleak irakasleari: Egiarekin noa / zuzen zuregana / handia da ipintzen / dudana nik afana / ez dut bate presarik / horixe da dana / examinadorea / da sobran dudana.

Madrilgo atentatua ere izan zen aipagai bakarkako lanean. Honela abestu zuen Anderek Irribarre gaitzat hartuta:

Madrid aldean ostegunean
Izan zuten ezbeharrak
Honaino ere iritsi baitzen
Bonba horien kedarra
Euskal Herritik hasieratik
Bidali gendun indarra
Ta une hontan haien aurrean
Esan liteke bakarria
Non gelditu da tren horietan
Zihoahtenen irriparra.

FINAL-AURREAK

Martxoaren 27an
19.00etan, Aramaioko Kultur
Etxean

Zigor Enbeita
Asier Otamendi
Ruben Sanchez
Orlando Arreitunandia
Rikardo Gonzalez de Durana
Andere Arriolabengoa

Apirilaren 3an
19.00etan, Laudioko Lanbide
Heziketako Udal Eskolan

Oihane Perea
Manex Agirre
Juan Mari Juaristi
Alberto Martinez
Serapio Lopez
Iñaki Viñaspre

FINALA

Apirilaren 25ean
17:30etan GASTEIZKO
PRINCIPAL ANTZOKIAN

Saio puntuagarri osoa egin ondoren honela geratu zen puntuazioa: lehenengo postuan Beitto 120.5 punturekin, bigarren Andere Arriolabengoa 119.5 punturekin, hirugarren Serapio Lopez 114 punturekin, laugarren Irati Anda 104.5 punturekin, bosgarren Irati Mendiguren 103.5 punturekin, seigarren Iker Agirre 101.5 punturekin, zazpigarren Markel Bekares 90 punturekin, zortzigarren Iker Ibarrola 80.5 punturekin eta bederatzigarren Josu Ormaetxea 79.5 punturekin.

Final aurrekoak baino lehen hauxe zen jokatu beharreko azken kanporaketa. Gauzak honela hauek dira final aurreak jokatuko dituztenak: aurreko

kanporaketako Rikardo Gonzalez de Durana, Iñaki Viñaspre eta Orlando Arreitunandia eta kanporaketa honetako Alberto Martinez, Andere Arriolabengoa eta Serapio Lopez. Guzti hauekin iazko finalistak, Asier Otamendi, Juan Mari Juaristi, Manex Agirre, Zigor Enbeita, Ruben Sanchez eta Oihane Perea.

Kanporaketa honetako bertsolariak gazteenak, Markel Bekaresek, eman du honezkero izena datorren urteko txapelketan parte hartzeko. Ea gainontzeko guztiek ere berdin egiten duten. Behin puntu honetara iritsita final aurrekoetara iritsitakoei gauza bat baina ezin zaie esan: zorionak eta zorte on!

MENDEBALDEA INSTITUTUAREN KULTUR ASTEA

apirilaren 1etik 7ra

dibertimendua eta kultura aste batean bildurik

Antzerkia, literatura, hitzaldiak...
Osagai hauek guztiak biltzen ditu
Gasteizko Mendebaldea ikastetxeak
antolatu Kultur Astea-k.

Apirilaren 1etik 7ra bitartean,
bertako eta inguruko ikasleek
ekintza kultural ugari gozatzeko
aukera ederra izango dute.

Apirilaren lehenengo astean kultura Mendebaldea ikastetxeko protagonista izango da, bertan 2003-04ko Kultura Asteak parada izango baitu. Orain dela 4 urte gauzatzen hasi zen ekimen honek helburu bikoitza izan ohi du. "Batetik, eskola orduetan jorratzen ez diren eguneroko bizitzaren hainbat arlo eta ezagupen lantzea ikasleen artean eta, bestetik, hauei Gasteizko kultura hurbiltzea", azaldu digu Jokin Larrañaga Mendebaldea ikastetxeko irakasleak. Berritasun gisa, aurten zenbait ekintza zabalduko zaizkie Lakua eta Gasteizko beste zentroei.

Gauzak horrela, apirilaren lehenengo egunean Jose Mari Carrere ipuin kontalaria saioa eskainiko die 1. mailako gazteei. Hauek, berriz, ipuinak antzeztuko dituzte inguruko auzokoen aurrean.

Egun berean, batxilergoko ikasleek Ingalaterrako Tune In taldearen ingelesezko antzezlanak ikusteko aukera izango dute. Horrez gain, gazteentzako informazio ugari eskuratu ahal izango dute Arabako Foru Aldundiak bertara eramango duen Infogazte deitutako autobusean.

Apirilaren 2an, ordea, Eneko Etxebarrieta bidaia-riaren bisita izango dute 2. mailakoek. Gazteak bizikletaz jada egindako bidaiaz mintzatzearaz gain, mun-

duari emango dion biraren inguruko gorabeherak ere plazaratuko ditu.

Bestetik, 1. mailakoek ere bisitaldi interesgarria jasoko dute, El Salvadorreko irakasle batena, alegia. Izan ere, Gasteizko ikastetxea herrialde horretako zentro batekin harremanetan dago aspaldi, besteak beste, errezetak elkarri trukatzuz. Aipatutako irakasleak hauei batzuk azaltzeaz gain, bere herriko errealitatea islatzen saiatuko da, ikasleak bertako egoeraz jabetzeko asmoz.

Jardunaldiarekin amaitzeko, edonori irekitako ekitaldi bi eskaintzen ditu programak; Lakuako Gizarte-etxean Mimo saioa aurkeztuko du Mattinek eta Hegoalde Gizarte-etxean, aldiz, "Kutsidazu Bidea, Ixabel" antzerki-lan arrakastatsua ikusgai egongo da.

Kultur Asteko hirugarren egunean, apirilaren 5ean, Eneko Pou eta Eneko Llanos kirolari ospetsuek hitzaldia emango dute. Kirola ardatza izango da, hala ere, elikadura eta osasunaren gaiak ere jorratuko dituzte. Honekin batera, 3. mailakoek

elkarkidetzaren baloreak lantzeko aukera izango dute GKE batek gauzatuko duen Garapen Tailerrari esker. Azkenik, Asier Serrano idazleak "Literaturatik musikara" saioa aurkeztuko die batxilergoko ikasleei, besteak beste, errezitaldia eskainiz.

Apirilaren 6a, astearte, literaturaren txanda izango da. Ikastetxeko ikasle askok irakurketa maratonia burutuko dute, hau da, klasean aldeztu aurretik aukeratutako eta landutako liburu baten zatia irakurriko dute besteen aurrean, gazteen artean ozenki irakurtzeko ohitura suspertu nahian. Gainera, irakurketak lau hizkuntza desberdinetan izango dira; euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

Hala ere, eguneko protagonista Jon Arretxe idazlea izango da, ikasleekin batera "Zazpi Kolore" liburuaren pasarteak irakurriko dituelako.

Apirilaren 7ko jardunaldiak amaiera emango dio Kultur Asteari, besteak beste, AESLEME elkartearen hitzaldiarekin eta Esketx lehiaketarekin.

Modu honetan, Mendebaldea ikastetxeko ikasleak modu dibertigarrian gure herrialdeko kulturara hurbilduko dira.



APIRILA

ERAKUSKETAK & LEHIAKETAK

• Gorputza erakusketa Zintzilik elkarte

Unibertsitate-Pabilioia • Apirilaren 7ra arte

• Valle Salado erakusketa

Joan Fontcuberta, Alberto Schommer, Oscar Molina, Gloria Massana-Cesar San Millan Ignacio Aldekoa Kultura Etxea • Apirilaren 30era arte

• Ipuin-erotikoen 9. Lehiaketa

Antolatzailea: Euskarabila-2004 (Basauriko Euskaldunon Elkarte) • Epea: apirilak 23

• Fantasi ipuin laburren XII unibertsitate lehiaketa

Antolatzailea: EHU. Arabako Campuseko Errektoreordetza. • Epea: maiatzak 28



MAITASUN SMSen LEHIAKETA:

Epaimahaiak, mezuen
originaltasun faltagatik,
saririk ez ematea
deliberatu du.
Mila esker parte
hartzeagatik.

6, 13, 20

PARRAL TABERNA ekitaldi
kulturalak: kontzertuak,
antzerkia,... Asteartero,
20.30etan

3 ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA-2004

Final-erdiak

MARTXOAREN 27an,
Finalerdia Aramaion
APIRILAREN 3an,
Finalerdia Laudion

FINALA

APIRILAREN 25ean,
PRINCIPAL ANTZOKIAN

15 BERTSO SAIOAK

MARTXOAREN 26an, 20.30etan

Amurrioko Kili tabernan

APIRILAREN 15ean BERTSO SAIOA IPARRALDE GIZARTE ETXEAN (Aste Kulturala)

20 HITZALDI SORTA-2004-GEU ALDIZKARIA & GEU ELKARTEA & NABARRALDE (ikus. kontrazala)

APIRILAK 20, ASTEARTEA. MONTEHERMOSO KULTURUNA: AMBIGU ARETOan (Jardin de Falerina kafetegiaren ondokoa), 20.00etan

HITZALDI MULTIMEDIA: AITOR ARANA idazlea (2003ko Gasteizko saria),

"EUSKAL HERRIA, IRAGANA ETA GEROA" izenburupean.

20 KULTUR ERROTA & GEU

ANTZERKIOLA IMAGINARIOA

"Fitola balba, karpuki tui"

Poesia, irudiak, Musikantak, antzerkia

APIRILAK 20

20.30etatik aurrera PARRALen

25 GEUREKIN MENDIRA

APIRILAREN 25ean

SEMENDIA (1042 m), JAUNDEN (1035 m.)

ARDURADUNA: BEGO (945266812)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
goizeko 9.00etan

aurrerago...

EUSKAL JOKO TOPAKETAK

XIBAREN eskutik (Ikastolen Elkarte)

non: araban, gipuzkoan, bizkaian,
nafarroan, iparraldean

noiz egingo da araban? maiatzaren

22an, foru plazan

nori zuzendua: herrikoia da. 16 urte-
tik gorakoentzat

antolatzailea: ikastolen elkarte,

Xibaren bidez (Xiba Ikastolen

Elkarteko adar berri bat da, euskal

kirol joko eta jolasak jorratuko ditue-
na hemendik aurrera, bai hezkuntzan

baita era herrikoian ere)

informazio gehiago: 945276376(roberto)

21 IRAKURLE KLUBA

Hikaateneo-n arratsaldeko 20.00etan

Apirilaren 21a, asteazkena

Jokin Muñoz, Bizia lo, Alberdania 2003

28 PRUDENTZIO DEUNA zorionak arabarroi!

10,17 TRIKITRAKA

TRIKITON martxan da
berriro

Euskal Telebistako Txi-
rri, Mirri eta Txiribiton
pailazoen "Trikitraka Tri-
kitron" ikuskizuna Gastei-
zen izan zen martxoaren 22 eta 23an, eta

orain aukera dago saio horiek telebistan
ikusteko: 22an grabaturiko saioa, apirila-
ren 10ean emitituko da; eta 23an graba-
tutakoa, apirilaren 17an.

Erne, Euskal Herriko haurrak. Euskal
Telebistako tren ezagunena martxan jarri
da berriro. Aurten ere Txirri, Mirri eta
Txiribitonek Euskal Herriko tren geltokiak
bisitatu eta alaituko dituzte. Bidaia ederra
izango da, eta abentura xelebreak biziko
ditugu hiru pailazo maitagarrien eta euren
adiskide guztien konpainian.



13tik 17ra bitartera

EUSKHARAN kultur elkartearen ASTE KULTURALA

(945288275) Apirilaren 13tik 16ra,

17.00etatik 21.00etara **AMAIA ZENTROAN**

**ZINEMA EUSKARAZ, HITZALDIA eta DIAPORAMA,
ZERAMIKA TAILERRA, DANTZA JOLASAK, MUSIKA
TRESNEN TAILERRA, INFORMATIKA GELA: JOLAS
INTERAKTIBOAK, ABESBATZA, IPUIN KONTALARIA:**

Jose Mari Carrere, **HAURENTZAKO JOLASAK**

Apirilaren 15ean, osteguna

BERTSO JAIALDIA 20.00etan

Beñat Etxepare Antzokia Sarrera: 3 €

Apirilaren 17an, larunbata

BAIGORRIRA TXANGOIA AUTOBUSEZ

Bisitaldi gidatua eta bazkaria

Gasteizko eta Baxenafarroako bertso eskoletako
ikasleen arteko desafioa

geugaste@grn.es • geuelkartea@grn.es

DEPENDE-ren flashak



ISA DIAZ LOPEZ
DEPENDE I

- Bizitza honetan dana da erlatiboa. Inongo kontuetan ezer ez da ezezko borobila ez baiezko borobila, gauzak ez dira kolore bakar batekoak, holan besterik gabe: baltza ala zuria, ez, nik uste beti dagoela "depende" hortik zintzilik, "depende" bat edo hamaika, seguraski errezago topatuko duzu hamaika "depende" "depende" bakarra baino; eta bizitzaren arlo guztietan gainera, ziur, are gehiago esango nuke nik, bizitzan hartu behar dituzun erabaki guzti-guztietan, eh! hori bai, salbuespenak salbuespen, noski!

...

- Ez, ez, hau interesgarria da, bai, bai, bada, itxoin apurtxu bat, ea nik ulertzen dudun, demagun...
...Baina Josu seriotan ari zen...

...gero eta urduriago ari zen jartzen lagunen elkarrizketaren nondik norakoa ikusita. Berauk sortutako kanta berri batentzako hitza zekarren...

...Gauzak honela, papera poltsikoan gorde eta ezer esan gabe ospa egitea erabaki zuen...

...Bien bitartean "demagun" horrek ekarri zuen... debate bukaezinaren giltza...

JON ARRETXE
DEPENDE II

Denbora luzean jarraitu zuten elkarrizketa harekin solaskideek, ia etenik egin gabe...
...Halako baten, ordea, solaskide guztiak itsualditik aterarazi zituen oihu bat aditu zen tabernako atean:

-Potroetaraino nago zuen rolloaz! -Josu zen halako haserreaz mintzatzen zena sarrera aldetik. Winchester antzeko eskopeta luzea zeukan eskuetan eta taldea apuntatzen ari zen-. "Dena da erlatiboa, segun eta, depende...". Kaka, betiko txapa! Horrenbeste txokolate erretzeak lehorte egin dizue garuna!...

...-Orain bai zaudetela prest kanta berrirako asmatu dudun letra entzuteko.

-Gu beti gaude zuri entzuteko prest, Josu, baina... zergatik ez duzu aldentzen arma hori?...

- Maite zaitut maite, maite, maite

Ez al duzu aditzen nire aienerik

Mendi garaienaren tontoretik

Etsipenez gainezka amodio eske?

...denek amaitu zuten barreka...

...Banan-banan garbitu zituen bere adiskide ohiak, eta ez zen tabernariak ahaztu...

...

-Entzun nahi duzue nire azken kantarako asmatu dudun letra?...



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23


Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ




TXABI ARNAL
DEPENDÉ III



- Eta zuri, nork eman dizu baimena elkarrizketa honetan parte hartzeko?
- Auzoko polizia da -aurreratu zen tabernaria giroa lasaitu nahian. Eskualde honetako tabernak zaintzen ditu arloteok arazoak sor ez ditzazuen.
- Horrela da -esan zuen aurpegi serioz indiarak. Jon, kobradazu hau. Goiko Tabernara igo nahi dut gaurko erronda amaitu baino lehen.
- 'Goiko Tabernara?', losu dardarka hasi zen. 'Gorpuak ikusiko ditu!', artegatu zen. Lagunduko zaitut -esan zuen azkenik...
...Eskopetaren kanoi bikoitza indiarraren giltzurrunen kontra ipinita, losuk gatiluari eragin zion...
...Bere azkenengo biktimak oraindak ere bizirik zirauela, losuk hilotzak pilatzeri ekin zion. Bat-batean norbaitek jo zuen atean...
- losu, zabaldu atea mesedez! Badakit barruan zaudela. Lagun batek lagunduta ikusi zaitut sartzen. losu, mesedez, ireki. Asmatu berria daukat doinu bat eta pentsatu dut agian zuk izan zenezakeela ongi datorkion hitzen bat. losu, benetan, bonba bat izango da!...

PATXI ZUBIZARRETA
DEPENDÉ IV



"Bost lagun, bost hitzontzi txoroflauta garbitu ditut, eta larrubeltz fidakaitz bat azkenetan utzi...
...bost lagun, beraz, bost kaskarin askojakin, kasik sei...
...baina Edurnek dagoeneko ezin du ate hau zeharkatu, ate batzuk hobeki daude itxirik, ezin du panorama hau ikusi..."
...Bere amorrazioa arintzeko, kaska!, zartako bat eman zion buruan larrubeltz fidakaitzari...
...halako batean, kanoiak gorputzetik bereizi, eta aterantza zuzendu zituen. Eta Josu, eta au, eta dan, eta Josu, eta dan, eta au, eta dan. Eta dan, eta dan, eta dan. Eta, azkenean, ez Edurneren oihurik, ez txakurraren zaunkarik, ez tabernariaren espanturik...
...Wiskya aukeratu zuen. Botila bat...
...Isiltasuna gozo da. Orduan hasi zuen euri ttikia ere isiltasuna zen. Gozo zen...
...isiltasunarekin ere, ezin bere onera etorri, ezin kirioak baretu...
...Frogak ezin agerikoagoak ziren. Eta etxera ezin joanik, Barrenkalera jo zuen...
...Eta, inon baino hurbilago, inora baino urrunago joan zen...
...Eta kantu bat. Josurena. Azkenean. Zotinak amaitutakoan.

—Ederra, solesote mío —entzun zuen, azkenean.

...oroitzapen bat...
...oroitzapen hark, kasik trumoi bortitz baten eragin berberarekin, su eman zion bere gorputzari. Wiskyak ezin hil izan zuen sua. Hiltzailea beti itzultzen omen da hilketa tokira...

Sartu
Zure arropa eta oinetakoa!
www.sartudenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA
Egurrerik, astelarenetik osatuta
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERREKAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL- 945 27 65 33

vitrales
BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
MIKEL
DELIKA

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tinoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Arturo Kanpion

(Iruñea, 1854 – Donostia, 1937)

Oroimenez

(2004ko martxoak 7: bere jaitegunaren 150. urteurrena)

Jose Luis Garcia de Falces



Ospe handiko nafar honi buruz hitz egitea edo idaztea bere lanaren handitasuna gainerik bada ere ezagutzen duen ororentzat plazer handia da, baina herri hau sentitzen eta maitatzen duen ororentzat baita mingarria ere, ezin izan duelako ezagutu. Duela gutxi arte zokoratuta egon diren laurogei lan baino gehiagoren egilea da, nafar orok eta batez ere Goi Nafarroako herritar orok, ezagutu behar lukeena. Kanpion bere nortasun monolitikoaren bidez Euskal Herriaren funtsa bere osotasunean onartu zuen gizona izan zen.

Iruñean jaio zen, 1854ko martxoaren 7an. Batxilergoa eta Zuzenbideko lehen ikasturteak egin zituen Oñatiko Unibertsitatean. Eta Gipuzkoako udalerri horretan jaio zen Arturo Kanpion euskal kausarako. Estanislao Aranzadi izan zuen irakasle, garai hartan euskal tesiaren esparruan prestakuntza handienetarikoa zuen gizona. Ziurrenik Aranzadi izango zen Kanpionengan bere ariman horren sendo errotuko zuen sentimendu hura ernarazi zuena.

Javier Ciga

Gure iragan historikoaren azterketak ustekabeko bideak zabalduko zizkion eta bide horietan barrena jo zuen. Gizakiak bere osotasunean gauzatzeko funtsezko zatiak falta zaizkiola ohartzen denean bihotzean sentitzen duen ezinegon horren erreminak bultzatuta, ziurrenik. Horrela ulertu zuen Arturo Kanpionek, bere arima eskuzabalaren sentiberatasun osoz, eta bere aberria ezagutzera zuzendu zuen bere bizimodua, bere hizkuntza, euskara, ikastetik hasita.

Horrela, abokatu ikasketak amaitu zituenean, euskara ikasten ahalegindu zen fin-fin. Eta ederki asko ikasi zuen, 30 urte inguru zituela lau literatur euskalkien inguruko gramatika argitaratu baitzuen Tolosan, 1884an. Hala idatzi zuen berak: "Euskara hizkuntza zakarra eta baldarra balitz ere, oso maite izango nuke nik, haur besoetakoa balitz bezala". Maitasun horri esker eta bertan sakonduz, filologo, historialari, ikertzaile, eleberrigile... izan zen. Manuel Irujok zioenez, "herri honen arazoek sortzen zioten kezka horrenbestekoa izan zenez, pentsa daiteke Kanpion artista eta jakintsu bere abertzaletasunak egin zuela".

Burua ondo duen edonorentzat ulergaitza da gizon honen lanak, kristau fina eta nortasun eta arima handikoa izan zen eta bizitza herriaren kausari eskaini zion gizon honen lanak, horrenbeste urtean zokoratuta eta isilean gorde izana; horregatik, herrikideek ere ez dute ezagutzen askotan.

Nafarroatik Diputatu izan zen, Bizkaitik Senatari, Eusko Ikaskuntzako Nazioarteko Elkarteko eta Euskaltzaindiko lehendakari, eta euskal kulturaganako gogo bizi hark beste kargu gehiago betetzera ere eramane zuen.

1893ko uztailaren 22an Diputatuen Kongresuan eman zuen hitzaldia gogoangarria da oso, eta haxe adierazi zuen bertan: "Hemen gaude nafar diputatuak, gure arrazaren ohiko zeregina betetzen, eta bai antzinako historian eta bai modernoan eta garaikidean ere aditz baten bidez adierazten dena egiten: **"eutsi"**. Hemen gaude, parerik gabeko atal berri bat idazten historiaren barnean, baskoiak beren lurra, etxea, ohiturak, hizkuntza, sinesmenak defendatzen erakusten dizkigun historia horretan, zeltarren, erromatarren eta frankoen handinahi basatiari aurre eginez, hala eta guztiz ere mende luzeetan beren naziotasun txikiari eusteko miraria eginez".

Atzo nahiz gaur –berriro hitz bera hartuz– nahitaezkoa da eustea. Gure askatasunak defendatzeko gure ahotsak altxatzea, lurra eta instituzio askeak jaso dituen herri baten askatasuna aldarrikatzea.

Halakoxea zen Arturo Kanpion.

Iruñeko etxean, Txapitela kalean, eta Donostian, Emilia etxean bizi izan zen, eta bertan hil zen 1937an, gerra zibil betean.

Paz de Zigandak, bere artikuluko nekrologikoan haxe zioen, saminduta: "Gure herriarentzat beti irekita bizi izan ziren argi-leiho handiak itxi dira gaur". Kanpai hark utzi egin zion jotzeari.

Arturo Kanpion ezagutu nuenean 81 urte zituen hark, nik 15 besterik ez. Euskal elkarte baterako hogeita bost pezetako ordainagiri bat kobratzera joaten nintzaion hilero. Berak hartzen ninduen eta nirekin halako bakarriketa bat izaten zuen; nik silaba bakarreko hitzekin erantzuten nion eta hark, berak egin zuen legez, ere euskara ikas nezan saiatzen zen. Ni txundituta uzten ninduen gizon haren xumetasunak, baina aldi berean halako harrotasun sentimendu batek hartzen ninduen maisu handiarekin, euskal kultura defendatzen lehena izango zen gizon harekin, parez pare hitz egiten nuelako. Sekulako lana egin zuen, esker txarra baino ekarri ez bazion ere, eta lan hori bere gizatasunaren erakusgarri bikaina dugu. Beti izan baita zaila "euskalduna naiz" esatea, eta hitz horiek beren baitan hartzen duten guztia onartu zuen, erantzukizun osoz, baita bere bizimoduan ere.

Kanpionek ipuinak, eleberriak eta kondairak idatzi zituen, behar eta merezi zuten zabalkunderik izan ez badute ere; izan ere, euskal auzia bere gordintasun osoan ukitzen denean erremina eragiten baitu, erre eta zauritu egiten baitu... Txalotzekoa da 1983an Mintzoa argialetxeak bere lan guztiak argitaratu izana, baina ez da nahikoa.

Badirudi Kanpionen lan bakoitza idazlearen zauririk isuritako odol tanta batekin argitaratu zela. Esate baterako, *Blancos y Negros* eleberrian abertzalearen sakrifizioaz mintzo da. *Pedro Mari* exekuzio-pelotoiaren aurrean hilko da; *El último tamborilero de Erraondo* lanean bere herriaren tragedia ikusiko du, bere hizkuntza eta idiosinkrasia galdu ondoren; *El Coronel Villalba* lanean Nafarroaren epopeia tristea deskribatuko du, Cisneros Kardinalaren "gurutzearen" agindupean, eta Nafarroa garaituta eta umiliatuta ikusiko du. Eta *El Bardo de Izalzu* lanean, bere emazte Emiliari zuzendu zion lan horretan, Gartzot hiltzen utziko du horma artean, bere izatearen muina azalduz.

Beste hainbat lan, guztira laurogeita hiru, argitaratu dira duela gutxi, oso txukun argitaratu ere. Baina nik uste dut beste omenaldi batzuen bidez ere goratu beharko litzatekeela gizon haren handitasuna, adibidez, bere izena daraman plaka bat jarriaren kale batean, jaio eta bizi izan zen etxearen aurrealdean, jaio zen hirian.

Iruñeko Museoan, jauregiaren zoko-bazter batean uste dut, ezkutuan bada Javier Ciga nafar pintorearen koadro bat, Comptoen Ganberan ikusgai egon zena; baina badirudi jaun bati enbarazu egiten diola eta Museoaren sotoan ezkutatu dute. Gure herrikide Arturo Kanpion handiaren irudiaren olio-pintura bikaina, margolari famatuak egin, jendearen oroimenean isildua. Zuk ulertzen al duzu?

Juan Iturralde y Suit, lagun handiak, esaldi hau idatzita utzi zuen: "*Bere burua aintzat hartzen ez duen herria ez da existitzen*". Eta haxe erantsiko genioke: bere pertsonaia ospetsuak ohoratzen ez dituen herriak bere burua desohoratzen du.

JAVI ANTOÑANA, gitarrajole aparta



Umila eta lotsatia sumatzen da Javi Antoñana gitarrajole gasteiztarra bere ibilbide musikalez hitz egiterako orduan. Egun Luis Aranburu Eskolan irakasle lanetan dabil musikari profesional hau gitarra jotzen, eta agian horregatik egin duen guztia ez dago bi orritan laburbiltzerik. Hamalau urterekin hasi zen musika munduan murgiltzen eta egun 42 dituela, bere ibilbideak Ruper Ordorika, Malu, eta Raul bezalako abeslariarekin jo izana biltzen du, besteak beste.

-Zein izan zen arrazoi nagusia gitarra jotzen hasteko?

Etxean sei anaia ginen eta nagusienak gitarra jotzen zuen. Betidanik entzun dugu etxean eta bi txikioi gustatzen zitzaigun... hortik datorkit zaletasuna. Ondorioz, 14 urterekin Frai Zakarias kalean zegoen Kontserbatorio zaharrera joaten hasi nintzen eta gitarra klasikoko zortzi ikasturteak egin nituen.

-Zein zen zure helburua?

Nik banekien kontserbatorioa behar

nuela, izan ere, lanbide hau zalantzarria da eta nolabait nirekin seguruago sentitzeko ikasketa ofizialak egin behar nituen. Gitarra klasikoak erakartzen ninduen eta gogoia neukan musika-ezagupenak ikasteko. Horrela eta ia konturatu eta proposatu gabe ikasketak bukatu nituen, nahiz eta proposamena hori izan ez. Gero eta bitartean musika estilo eta joera ezberdinak jotzen aritu naiz. Kontserbatorioan egindako karrera aldiz, batzuetan hobeto eta beste batzuetan txarrago eraman nuen. Hau


ez da bide erraza eta askotan motibazio gorabeherak izan ohi dira.

-Behin karrera bukatuta zeneukala, zer?

Nire iritziz irtenbide gutxi dituzu... (barre egiten du)

-Hori esaten al diezu zure ikasleei?

Ez, ez, (barre egiten du). Dena den, hau musika eskola da eta titulaziorik ez da lortzen bertan. Musika arautua ez denez, zaletasuna besterik ez da asetzen



bertan eta hortaz, ez dago Kontserbatorioan bezainbeste presiorik. Irteerei dagokienez, hezkuntzara dedikatzea da nik ikusten dudana bakarrenetakoa. Ideala aldiz, akaso kontzertista izatea litzateke, jotzea, alegia. Segur aski gehienok horretarako ikasi dugu eta jotzeko bokazioa daukagu. Baina mundu honetan batetik, diziplina gogorra dago, zeinak egun osoko dedikazioa eskatzen dizun eta bestetik, oso ona izan behar duzu honetaz bizi ahal izateko.

-Berbenetan hasi zinen jotzen gazte-gaztea zinenean eta hortik hainbat musikari ospetsurekin ibiltzera ere pasa zinen.

Bai, hala da, Ruper eta Mugalariekin jo nuen, baita Malu eta Raul bezalako abeslariarekin, baita Euskadiko Orkestrearekin.

-Nola lortzen da hori?

Beno, gauzak jakinarazten dira eta ondo eginez gero gerta daiteke deitzea. Nik gogoan neukan horrelako esperientzia bat izateko, agertoki handietan, muntaia itzelak... eta batez ere zuzenean jotzeko. Pentsa daiteke hori oso polita dela eta

bidaiatzen gauza asko ikusten dituzula, baina horretaz aparte oso neketsu suertatzen da.

-Ruper Ordorika, Raul... artista batekin edo bestearekin aritzea desberdina izango da...

Ezberdintasuna dago, noski; nik kasu horietan nahiago antzoki txikietan aritu, kontzertu erraldoi horietan baino.

-Zu egun irakaskuntzan aritzen bazara ere, zuzeneko kontzertuak egiten jarraitzen duzu.

Bai, hemendik ibiltzen naiz Nika izeneko biolinjole batekin. Bikote bat osatzen dugu eta erreperitorioa lantzeak denbora eskatzen badu ere oso gustura gaude.

-Musika munduan zeintzuk izan dira zure erreferente nagusiak?

Buff... benetan zaila hori esatea. Bai gustatuko litzaidakeela aipatzea 1980 urtetik 1998ra arte Roberto Ugarte musikariarekin osatutako Bitarte izeneko bikote musikala. Niretzat ezer baino esanguratsuagoa izan zen esperientzia hori nire prestakuntza musikalean.

-Lau CD edo musikari gomendatu beharko bazenizkit?

Musikaren lengoaia tranpa bat da (barre egiten du), estilo ezberdinak ditut gustuko, eta batzuk aipatzearen... (bere denbora hartu eta gero): Eric

Clapton blues estiloan; Paco de Lucia, mito bat; Jose Miguel Moreno gitarra klasikoan; eta Ruper Ordorikaren azken diskoa, oso ona dena.



Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



**PITILIN
GORRI**
GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59



Errege otea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA


Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurria, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure
konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



EGIPTO

edurne begiristain

argazkiak: ivan santamaria

• NONDIK NORA:

Gasteiz-Egipto

• HERRIAREN DATUAK:

Egiptoko Arabiar Errepublikan ia 70 milioi biztanle bizi da. Bere hiriburua Kairo da, eta hiri nagusiak Alexandria eta Gizeh dira. Arabiarrak dira etnia nagusiak, baina nubiar eta berbere bakan batzuk ere bizi dira bertan. Erljioei dagokienez, gehienak (%94) musulman sunitak dira eta gainontzekoak (%6) kristau kopto eta bestelakoak.

• NOLA JOAN:

Zuzenean Luxorrera hegazkinez.

• ZENBAT DENBORA:

9 egun.

• AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA:

Pasaportea eta bisa turistikoa eramatea ezinbestekoa da.

• MOTXILAN ZER ERAMAN:

Urteko edozein sasoitan joanda ere, eguraldia lehorra eta beroa da. Beraz, arropa arina eraman (jertseren bat ere bai, gaez hoztu dezake-eta) eta eguzki babeserako krema zein betaurrekoak ez ahaztu. Sabelerako pilulak eraman, badaezpada ere. Eltxoak ere oso ohikoak dira, beraz, haiek uxatzeko produktuak eraman.

• TXANPONA:

Libera egiptoarra da bertako txanpona.

• HIZKUNTZA:

Hizkuntza ofiziala arabiera da. Baina saltzeko baldin bada, edozein hizkuntza erabil dezakete, baita euskara ere! Ingeleseztan eta gatzeleraz ere ongi moldatzen dira.

• TOKIAREN DESKRIKAPENA:

Askok Egiptori buruz duten irudia erabat okerra da, gaur egun herrialde erabat islamdarra delako. Oso bizia da, jendea eguneko 24 orduetan dabil kalean. Paisaia lehorra da oso, baina kontrasterako aukera ere badago, izan ere Nilo ibaiaren inguruko lurraldeak nahiko emankorrak dira. Gainontzekoa, ordea, basamortua da.

• PLAN EREDU EGOKIA:

Hamar bat eguneko bidaia egitea proposatzen dugu:

Hegazkinak Luxorren utziko gaitu. Hiri honetan gauza asko ikus daitezke (Erregeen bailara, faraoiak, Luxor eta Karnak-eko tenpluak...), eta bertan bizpahiru egun emango ditugu.

Luxorretik hegoaldera, Edfu-raino. Hemen ere tenpluak dira nagusi, Horus tenplua, esaterako.

Edfu-tik Konomb-era joko dugu.

Hurrengo geltokia Asuan izango da. Asuan-en zoko izugarria ikus daiteke.

Ontzia hartu eta hegoaldera joango gara, nubiarren herriraino. Bertatik hegazkina hartuko dugu Kairoraino eta handik buelta etxera.

• AHOLKUAK - JAKIN BEHARREKOAK:

Egiptoarrak turistekin oso astunak izan ohi dira, den-dena saldu nahi dute eta. Hoberena da kasu gehiegirik ez egitea.

Turismoa ez dagoen tokietan lasai asko ibil daiteke.

Tratuak egiteko leku egokia da, eta dibertigarria ere izan daiteke.

Oso gidari txarrak ei dira, beraz ez da komeni autorik alokatzea. Kairon merezi du taxi bat hartzea ikusteko zein modu eroan gidatzen duten.

Ez da komeni dirua kalean aldatzea, balio ez dizuten txanponak eman diezazkizukete eta.

Une oro eta denaren truke eskupekoak eskatzen dituzte.

• DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:

Kairoko museo egiptoarra. Tutancamon-i dedikatutako museoa da. Liluragarria.

Piramideak eta esfingeak.

Kairoko alde islamdarra. Bertan munduko zokorik handiena dago.

Saladinoko gotorlekua. Bertatik Kairo guztia ikus daiteke.

Asuan-eko zokoa. Inguru horretan posible da ontzi batean txango bat egitea.

Abusinbel-eko tenplua.

EGIPTO

• BESTELAKOAK:

Taberna batera joanez gero, tea eta shis-a eskatu. Shisa urrezko pipa bat da, eta sagar zaporezko tabakoa erretzeko balio du. Oso osasuntsua eta lasaigarria omen.

Hotelek zerbitzu ona eskaintzen dute.

Leku turistikoetatik at nahiko merkea da gutzia.

Poliziaren presentzia oso deigarria da, hasiera batean harrigarria ere izan daiteke.

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

UDA-TREBIÑU: TRAGEDIAREN HASIERA

Agur eta erdia, irakurle. Aurreko zutabettoetan adierazi genuenez, egun deitzen ohi dugun "Araba" Nafarroaren baitan zegoen antolaturik, eta bere lurak, ibarrak, lautadak, mendialdeak nafar eskualde batzuk ziren. XII. mendearen amaieran, halere, gaztelarrek militarki inbaditu zituzten nafar lurralde hauek, arabarron gogoa bortxaz menperatuz. Uda-Trebiñuk, baina, denbora luzaz eutsi zion. Antza, Gasteizko biztanleen moduan, inork baino tinkoago. Eta horregatik, zigorraren gisa, Burgosko jaureria da, "Manrique" jauntxo gaiztoen eskuetan paratu zutena. Horiek, beranduago, ospe handiz jantzi ziren Granada edo Ameriketako genozidioetan, baita Iruñean ere, non lehenengo erregeorde postua eskuratu baitzuten.

Hots, Uda-Trebiñu ez da inoiz "Araba" izan. Uda-Trebiñu Nafarroa zen, eta militar konkistaren ondorioz gaztelar lurralde bilakarazi zuten. Hortaz, logikoa da Euskal Herriaren, Arabaren nafartasun politikoa azaltzen duen Nabarralde kultur ekimenaren aurkezpen ofiziala Trebiñuko udaletxean ere aspaldi burutu izana.

Duela urte gutxi, abenduaren 28ko ohiko txantxen testuinguruan, Uda elkartekoek, instituzioek erakutsiriko hamaika urtetako jarreraz nazka-nazka eginda, honelako aldarrikapena zabaldu zuten komunikabideetan: berriro ere nafar hiritar nahi zuten bihur. Harrigarriena: arabar nahiz burgostar agintariek amua oso-osorik irentsi zuten. Gureak eta bi ikusteko jaioak baikara! Eta kasu, ez nahas, zeren eta Nabarralden garbi baitugu Uda-Trebiñu Araba dela; baita Araba, Euskal Herriaren altzoan maitaturik, Nafarroa dela ere, jakina!

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO SUKALDARITZA ESKOLA

UNTXI MARINATUA, NEGUKO FRUTEKIN BETEA EA ZITRIKOEN ZUKUAN



LAU LAGUNENTZAKO OSAGAIK:

Untxia (pieza osoa)		Betetzeko:	
Itsas gatza	1 c.c.	Pikupasak	8 u.
Gurin enpomatua	2 c.s.	Orejoiak	4 u.
Aluminio papera eta haria.		Hezurrik gabeko aran-pasak	4 u.
Marinatua:		Ahate foiea	100 g.
Oliba olio	4 c.s.	Behazuna kendutako	
Jerez ardoa	4 c.s.	untxi gibela	50 g.
Ezkaia, erromeroa,		Maldon gatza	1 c.c.
erramua eta perrexila	2 c.s.	Kanela zotza	erdia
Piperbeltz aleak (birrinduta) 6 u.		Limoia azala (zuria kenduta)	erdia
Jengibre birrindua	1 c.c.	Ardo zuria	1 dl.
Zitrikoen saltsa:		Hornigaia:	
Azukre arrunta	2 c.s.	Brick olatak	4 u.
Ura	2 c.s.	Hur xehatua	1 c.s.
Curina	15 g.	Almendra xehatua	1 c.s.
Eztia	1 c.s.	Mahaspasa xehatua,	
Laranja-zukua, limoi-zukua,		hazirik gabe	1 c.s.
pomelo-zukua...	2 dl.	Gurin urtua	25 g.
		Hemengo errege-sagarra	2 u.
		Azukre beltza	1 c.c.

PLATERAREN PRESTAKUNTZA:

Prestakuntza:

- Untxia urarekin garbitu eta lehortu, burua kendu eta gorde, eta koipeak eta gibela eta antzeko barrukiak kendu; gibela gorde.
- Untxiari hezurrik kendu eta marinatuarekin estali haragia zenbait orduz.
- Bitartean, urez betetako ontzi batean fruta lehorrak jarri eta utzi bertan, biguntzen diren arte. Pixka bat biguntzen direnean, ura kendu eta kanela, limoi azala eta ardoa bota; ondoren, egosi pixkana eta utzi estalita zenbait minutuz.
- Zartagina olio igurtzi eta ondo berotuta dugula, untxiaren gibela dadotxotan moztu ondoren, salteatu; geroxeago, foiea zati lodia gotan ebaki eta erantsi; maldon gatza, piperbeltza eta marinatuaren zukua bota, sutatik kendu eta epeltzen utzi.
- Zabaldu untxi haragia laukizuzen baten forma emanez, gatza bota eta soka moduko bat osatu gibela erekin eta egositako frutekin (pikuak eta orejoiak erditik ebaki), biribildu eta ondo itxi, ondo koipetutako aluminio papera erabiliz; ondoren, hariarekin lotu, olio igurtzitako sutontzi baten gainean ezarri eta, labean 180° C-ko tenperaturara jarrita, betan sartu 12 minutuz. Atera labetik eta hozten utzi, askatu gabe.

Saltsa:

- Sutarako ontzi batera azukrea eta ura bota eta almibarra bere puntuan egin; ondoren, zitrikoen zukua eta ezti erantsi, egosi guztia kontzentratuta gelditzen den arte, atera sutatik eta gurina dadotxotan ebaki eta bota ondoren loditu, gurina erantsen diogun bitartean saltsari eraginez.

Hornigaia:

- Sagarrak zuritu, haziak kendu, laurdenetan ebaki eta azukre eta gurin pixka batekin salteatu, karamelatuz.
- Brick olatak bernizatu gurinarekin, xehatutako fruitu lehorra bota gainetik, "silikonazko" bi plaken artean kokatu eta, labean 160° C-ra dugula, egin 8 minutuz. Ondoren, atera eta olata bakoitza erditik ebaki. Xehatutako zatiak barrualdera dituztela, konoak egin.

Platerak prestatu:

- Haria eta aluminio papera kendu untxiari eta 8 zati berdinetan ebaki. Zartagina olio igurtzita eta bero-bero dugula, gorritu bi aldeetatik, plateraren alde batean bi zati ezarri saltsarekin igurtzita, ondoan sagar zatien gainean bi kono jarri gurutzatuta eta, inguruan, zitrikoen saltsa horren printzak dituela aurkeztu.

(itzulpena: azitri)

KULTUR ERROTA

ANTZERKIOLA IMAGINARIOA

"Fitola balba, karpuki tui"

Poesia, irudiak, Musikantak, antzerkia

Antzerkiola Imaginarioaren dramagile eta ikerlaria den Jon Gerediagak idatzitako lehen-dabiziko poema liburutik sortutako Irakurketa drama dugu hau. Bere hitzez gain, irudiak, musikantak eta aktoreen ekintzak baliabide poetiko bihurtzen dituen lana.

Jon Gerediaga adiskidea, Bilboko Mina Espazio kobazulo artistikoan ezagutu nuen. Txalaparta jotzen zuen eta ez dut uste saguzar izateko asmo handirik zeukanik garai hartan. Ezagutzarekin batera, beharrean hasi ginen elkarrekin. Holderlin-ekin jolasten genuen bitartean, lagunaren presentzia eta lagunaren ausentzia hitzean agertzen zen.

Witkiewicz deitzen nion, eta irrifartsu erantzuten zidan: "estar, hay que estar! Beti zegoen kanpoan baina barruan, urrunera bidaiatzen baina hurbil, Ruper-en melodiak kantatzen, eta tamalez, zorionez, errealitate paraleloetan barreborrokan. Amodioa, Khea, pentsamendua, hizkuntza, isilunea, magia, memoria, bidaia, bizitza.... eta Puck ume maitagarriaren galdera: zer da poesia? Bere hitzak irakurtzean ez da erantzunik aurkitzen, ez orinean, ez eternitatean. Bere hitzetan poesia da ediren.

Eskerrik asko Jon, Gora bihotzak!

Ander Lipus

Poemak:

Jon Gerediaga

Musika eta soinuak:

Aitor Agiriano

Eskenografia eta irudiak:

Aritz Merino

**APIRILAREN 20,
ASTEARTEA,
20.30ETAN
PARRAL-EN**

GEUREKIN MENDIRA

**APIRILAREN 25ean
SEMENDIA (1042 m), JAUNDEN (1035 m.)**

ARDURADUNA: BEGO (945266812)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
goizeko 9.00etan



**GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA**

**HIKATENEON-
ARRATSALDEKO
20.00ETAN**

Geu elkartaren ekimenez

Apirilaren 21a, asteazkena

Jokin Muñoz, Bizia lo, Alberdania 2003

• Maiatzaren 26a, asteazkena

Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea,
Pamiela 2003

• Ekainaren 30a, asteazkena

Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu,
Alberdania 1995

HITZALDI SORTA-2004

(ikus. kontrazala)



**GEU ALDIZKARIA
eta
GEU ELKARTEAREN
ekimenez,
NABARRALDERekin
elkarlanean**

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

• Goizez

Ilune. 945010322

• Arratsaldez

Patxi. 652743205

• Gauez

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

• Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

Miryam. 656761588

geuelkartea@grn.es • geugaste@grn.es





HITZALDI AK-2004

TOKIA: MONTEHERMOSO KULTURUNEAn - AMBIGU ARETOAn
(Jardín de Falerina kafetegiaren ondokoa)

ORDUA: 20.00etan

APIRILAK 20, ASTEARTEA

HITZALDI MULTIMEDIA: **AITOR ARANA** idazlea (2003ko Gasteizko saria), "EUSKAL HERRIA, IRAGANA ETA GEROA" izenburupean.

MAIATZAK 19, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA: **ABIZENEN ESANAHIA. MIKEL BELASKO.**

URRIAK 20, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA: **EUSKAL ESTATUAREN SORRERA. ERLANTZ URTASUN.**

AZAROAK 17, ASTEAZKENA

HITZALDI MULTIMEDIA:

1000. URTEKO EUSKALDUNAK. ERLANTZ URTASUN.

ABENDUAK 14, ASTEARTEA

HERRI KIROLA & SOLASALDIA:

IÑAKI PERURENA: "50 ALTXALDI, 50 GALDERA".